Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza
Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa

GIPUZKOAKO ERREPIDE BIDEZKO BIDAIARIEN GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUA. APLIKATZEKO AZALPENAK

1 **Haur-aulkian edo haur-kotxean doazen 5 urtetik beherako haurren dohaneko tiketa eskuratzea.**

5 urtetik beherako haurren tiketa eskuratzeko haurra bere haur-aulkian utzi beharko da eta gidariarengana hurbildu. Haurraren segurtasuna bermatzeko haur-aulkia edo haur-kotxea lotuta eta balazta jarrita egon behar du.

Edozein modutan, beti dago aukera tiketa hirugarren batek eskuratzeko, nolabait pertsona heldua umetxoarengandik edo haurrengandik ez banatzeko.

2 **Ontzian ez doazen zakurrak eta aseguru-poliza.**

Ontzietan ez doazen zakurrek ibilgailuaren plataforman bidaiatu ahal izango dute, betiere animalien ezaugarriei egokitutako uhal batez lotuta egon beharko dira, une oro zaintzailearekin ukipen fisikoa mantenduz, muturrekoa jarrita, baimendutako albaitari batek emandako osasun-txartela eta erantzukizun zibileko aseguru bat eraman beharko dute, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako higiene- eta osasun-egoeran zein segurtasun-baldintzetan egon beharko dira.

Nolanahi ere, gidariak adierazitako osasun-txartela eta aseguru-poliza erakustea eskatu ahal izango du, pertsonei edo ondasunei kalte eragiten dien arazoren bat gertatuz gero.

Muturrekoa

Erregelamenduaren arabera ontzietan garraiatzen ez diren zakurrek muturrekoa eraman beharko dute, nahiz eta ibilgailuaren plataforman bidaiatu ez.

Izatezko arrazoiengatik zakurrak eramatea ez debekatzearen, ontzi kontzeptuaren interpretazio zabala egingo da, eta poltsetan, saskietan, kapazuetan eta antzekoetan sartuta eramatea onartuko da.

Beraz, bi aukera daude:

- Zakurra poltsan, saskian, kapazuan eta antzekoan eraman, muturrekorik eta uhalik gabe.
- Zakurra besoetan eraman, inongo ontzirik gabe, baina muturrekoa eta uhala jarrita.

Lurrean doazen zakur guztiak uhalarekin lotuta eta muturrekoarekin igoko dira.

Erantzukizun-zibileko asegurua

Ibilgailuetara igo daitezkeen zakurrak, arriskutsuak ez direnez, ez dute aseguru poliza berezia. Jabeek erantzukizun-zibileko asegurua izatearekin nahikoa dute. Horrela izanda, nahikoa litzateke ibilgailuetara animaliarekin igo nahi dutenek etxeko aseguru-polizako estalduren artean animaliak eragin ditzakeen kalteak barne izatea.

3 Scooters-elektrikoak eramatea.

Segurtasun arrazoiengatik ezingo da ukatu sarrera scooters-arekin bidaiatzen dutenei, inola ere debekatuta ez daudelako. Horrelako moto edo scooters gehienek , gurpil-aulki elektriko askok baino pisu gutxiago dute.

Hala ere, ibilgailu barruko erabilerak gainerako pertsonei arriskua ekar dezakeela ikusten den kasuetan, segurtasun-arrazoiengatik scooters-en sarbidea debekatu ahal izango da.

Gurpil-aulkiekiko, haur-aulkiekiko eta bizikletekiko lehentasunari dagokionez, ume-aulkietara asimilatuko ditugu. Beraz, gurpil-aulkiek lehentasuna izango dute scooters-kiko, baina hauek bizikletekiko.

Geraleku berean haur-kotxe edo haur-aulki bat eta scooters bat batera gertatzen badira, lehen iritsi denak izango du lehentasuna.

4.Ikus-urritasun handia duten pertsonen laguntzailea.

ONCEren karneta daramaten ikus-urritasuna duten erabiltzaileek dohainik bidaiatuko duten laguntzailearekin bidaiatu ahal izango dute.

Aipatutako karnetik ez badu, gidariaren irizpidea nagusituko da, eta ordaintzera behartuz gero, ohartuko zaio Agintaritzaren aurrean erreklamatzeko aukera daukala.

5. Burka, belo integrala edo antzekoa daramatzaten emakumeen sarbidea.

Burka edo belo integrala daramatzaten emakumeak ibilgailura sartuko dira aurpegia erakutsi gabe, beti ere identifikaziorik eskatzen ez duen txartel anonimoz edo eskudirutan ordainduz gero.

Emakumeak bidaia txartel-pertsonalizatuarekin ordaindu nahiko balu, iruzurra saihesteko beharrezkoa izango litzateke daraman txartelaren jabea dela

egiaztatzea. Beraz, ez badu bere nortasuna frogatzen eta, txartel anonimoz edo eskudirutan ordaindu nahi ez balu, ezingo du bidaiatu.

Inolaz ere ezingo da emakumeari behartu aurpegia erakustera, baina bai eskatu ibilbidea eskudirutan edo txartel anonimoz ordaintzea.

Segurtasun-arrazoirik ezin izango da argudiatu emakume hauen sarbidea ibilgailuetara ukatzeko.

6 Haur-bizikleten sarbidea.

Erregelamenduan haurren bizikletak fardel bezala onartu dira. Aldiz, tamaina desberdinak dituztenez, horren arabera bereizi beharko genituzke. Jarraitzeko irizpidea hurrengoa izango da:

1.Heldua eta haurra bizikletekin igotzen badira, ondorio guztietarako bizikleta biak bizikletatzat hartuko dira, haurra pertsona autonomotzat hartzen delako, eta ondorioz, bere bizikleta ezin delako onartu jolasa edo fardel moduan.

2.Heldua bizikletarik gabe badoa eta haurra bizikletarekin, haur-bizikleta, txikia denez, fardel bezala hartuko da (jostailu) eta ez da kontuan hartuko bizikleta kopuruan.